

# Natura du ardatz Valverderen Baionako erakusketak

Javier Valverde artista oiartzuarraren «Olioak, pastelak eta beste gauzak» izeneko erakusketa Baionako Galerie La Traverseen dago ikusgai urriaren 3ra arte, asteartetik larunbatera.

Iñigo EXPOSITO | DONOSTIA

Javier Valverde artista oiartzuarraren «Olioak, pastelak eta beste gauzak» izeneko erakusketa Baionako Galerie La Traverseen dago ikusgai urriaren 3ra arte.

Pinturarekin, literaturarekin eta musikarekin harreman zuzena duen margolaria da. Oiarztunen, Antonio Valverde aita pintorearen «Ayalde» izeneko estudioan denboraldi luzeak eman ditu. Bertan, bere aitaren artista lagun guztiak biltzen ziren. «Betidanik izan dut arteagatik interesa, txikitatik bizi izan dut giro hori. Hala ere, 19-20 urterekin hasi nintzen serio samar», aitortu du artistak.

«Olioak, pastelak eta akuarelak erabiltzen ditut lanetan», azaldu zuen Valverde. «Egun guztia mendiari begira egoten naiz, eta nire irudikapenetan paisaia konplikatua egiten ditut. Jendeak ezkutuko gauza asko ikusten ditu nire obretan», gehitu du.

Artistak inguratzen dion natura jasotzen du margolanetan, errealismo magikoranzko bidea hartuta. Horrela, paisaia surrealista dituzten pinturak sortzen ditu, plano, elementu eta itzal ezberdinak landuta.

Baionan, asteartetik larunbatera, 10.00etatik 12.30era eta

## ERAGINAK

**«Munduko margolari guztien eragina dago nire lanen atzean. Agian, nahi gabekoak dira eragin horiek, baina jendeak antzematen ditu», aitortu du Valverde.**

15.00etatik 19.00etara, ikusgai dagoen erakusketara 30 irudikapenetik gora eraman ditu margolari oiartzuarrak. «Hirugarren aldia da nire obrak Ipar Euskal Herrira eramaten ditudala, lehendik ere Senperen eta Izuran egona naiz. Oso gustura joaten naiz bertara», adierazi du artistak.

### Eramandako lanak

Galerie La Traverseeko ardura-duna Valverderen estudioa joan zen bere lanak ikustera. «Oso ondo konektatu nuen galeriakoekin, nire lanak ikusi eta interesa zutela berehala esan zidaten», azaldu du.

Guztira, 28 margolan eta egurrez, plastikoz eta beste zenbait

material solidoz egindako bost objektu eraman ditu. «Erakusketetara, orokorrean, lan berriak eraman ohi ditut. Oraingoan, ordea, lan zahar eta berriak daude ikusgai. Hala ere, Baionako erakusketarako espresuki egindako obrak daude tartean», esan du.


Paisaiarekin lotutako lanek jantzi dute La Traverse galeria, «Olioak, pastelak eta beste gauzak» izeneko erakusketarekin. «Izenburua nire lanen irudikapenen isla da. Bertan, olio eta pastel margolanak eta beste erabateko objektuak, eskultura antzekoak, egongo baitira ikusgai. Denetik pixka bat eraman dut bertara», berretsi du.

«Erakusketetan, obrek beren artean harremana dutela esan ohi didate, eta oraingoan ere horrela izango da. Munduko margolari guztien eragina dago nire lanen atzean. Agian, nahi gabekoak dira eragin horiek, baina jendeak antzematen ditu», aitortu du.

Lapurdiko hiriburuko erakusketa prestatuta, datorren urtean Iruñeko Zitudelatan egingo duen erakusketa ari da antolatzen. «Erakusketa hori prestatzeko lanean hasia naiz, eta urtebete inguru falta bada ere, urtea oso azkar igarotzen da», argitu du Valverde.



Erakusketan ikus daitekeen beste lanetako bat. JAVIER VALVERDE



Paisaia surrealista bat irudikatzen duen Javier Valverderen obra. JAVIER VALVERDE

**FLAMENCO ON FIRE 2015**

II FESTIVAL DE FLAMENCO DE PAMPLONA  
17 a 20 de agosto  
EL FLAMENCO VIAJA HACIA EL NORTE

II. IRUÑEKO FLAMENKO JAIALDIA  
Munduko 12tik 16ra  
FLAMENKOAK IPARRERANTZ BIDAIATZEN DU

ABUZTUAK 22 DE AGOSTO   TEATRO GAYARRE ANTZOKIA GALA FLAMENCA HOMENAJE A <b>PEPE HABICHUELA</b> OMENEZKO FLAMENKO GALA	ABUZTUAK 23 DE AGOSTO   BALUARTE <b>REMEDIOS AMAYA</b>
ABUZTUAK 23 DE AGOSTO   CATEGORIAL DE PAMPLONA / IRUÑEKO KATEGORIALA <b>MISA FLAMENCA SINFÓNICA</b> COMPOSITOR Y DIRECTOR / KONPOSITOREA ETA ZUZENDARIA: PACO SUÁREZ	
ABUZTUAK 24 DE AGOSTO   BALUARTE <b>CARMEN LINARES</b> JORGE PARDO TINO DI GENILLO CARLES BENAVENT	ABUZTUAK 25 DE AGOSTO   BALUARTE <b>MANUELA CARRASCO Y ANTONIO CANALES</b>
ABUZTUAK 26 DE AGOSTO   BALUARTE <b>DORANTES Y MARINA HEREDIA</b>	ABUZTUAK 27 DE AGOSTO   BALUARTE <b>BALLET NACIONAL DE ESPAÑA</b>
ABUZTUAK 28 DE AGOSTO   BALUARTE <b>FARRUQUITO</b>	ABUZTUAK 29 DE AGOSTO   BALUARTE <b>MARIA JUNCAL</b>
ABUZTUAK 29 DE AGOSTO   BALUARTE <b>JORGE PARDO</b> JAVIER COLINA JERRY GONZÁLEZ RYCARDO MORENO...	ABUZTUAK 30 DE AGOSTO   BALUARTE <b>ESTRELLA MORENTE Y ORQUESTA SINFÓNICA DE NAVARRA</b>

**CICLO NOCTURNO**

ABUZTUAK 26 DE AGOSTO   HOTEL 3 REYES HOTEL A <b>FARRUQUITO Y JUAN RAMÍREZ</b>	ABUZTUAK 28 DE AGOSTO   HOTEL 3 REYES HOTEL A <b>JOSEMI CARMONA, JAVIER COLINA Y BANDOLERO</b>
ABUZTUAK 27 DE AGOSTO   HOTEL 3 REYES HOTEL A <b>IVÁN VARGAS</b>	ABUZTUAK 30 DE AGOSTO   HOTEL 3 REYES HOTEL A <b>JUAN CARMONA, SAÚL QUIRÓS Y JOSÉ ENRIQUE MORENTE</b>

EN MEMORIA DEL GRAN MAESTRO SÁBICAS MAJULAREN OMENEZ

VENTA ANTICIPADA / AURRETIAZ SALMENTA  
Gayarre: www.entradas.com / Taquillas Leihatilan  
Baluarte: www.baluarte.com / www.elcorteingles.es /  
www.ticketmaster.es - 902 15 00 25 / Taquillas Baluarte Leihatilan  
Ciclo Nocturno: www.elcorteingles.es / Tiendas Dendetan



www.flamencoofire.org

